

Valentín Dueñas Bilboko Arte Ederren Museoan



María Soto Cano

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

- © Archivo de la Villa del Ayuntamiento de Madrid: 7. ir.
- © Auñamendi Eusko Entziklopedia: 2. eta 5. ir.
- © Ayuntamiento de Málaga. Fotografía: José Antonio Torres Tabanera: 3. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa – Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 9. eta 15.-22. ir.
- Cortesía María Soto Cano: 8. ir.
- Cortesía Roberto Sterling: 6. eta 11.-14. ir.
- © Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco: 10. ir.
- © Koldo Mitxelena Liburutegia-Biblioteca. Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa: 4. ir.

Argitalpena:

Buletina = Boletín = Bulletin. Bilbao : Bilboko Arte Ederren Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 10. zenb., 2016, 285.-304. or.

Babeslea:



metro bilbao

2015ean, brontzeko erliebez eta osagaiz apaindutako marmol gorrizko tximinia bat sartu zen Bilboko Arte Ederren Museoan [1. ir.], Bizkaiko Foru Aldundiaren erabilera mailegu baten bidez. Pieza haren apaingarri eskultorikoak eta, seguru asko, haren diseinu orokorra Valentín Dueñas euskal eskultoreak egin zituen 1919. urtearen inguruan, eta egile berarena bide da gaur egun tximinia apaintzen duen apal edo erlaitzeko pieza, brontzean urtutako emakume etzan baten irudia, 1930ekoa. Echevarría Echevarrieta familiarentzat egin ziren lan horiek, Gurutzetako Munoa jauregiko jangelarako (Barakaldo, Bizkaia), eta hantxe egon bide ziren orain dela ez askora arte, zaharberritu eta museora aldatu zituzten arte, hain zuzen. Barakaldoko Udalak etxaldea desjabetu ondoren lekualdatu zituzten, jauregitxoan bizi zen azken oinordekoa, Amalia Echevarrieta Madaleno, hil ondoren (2014ko urtarrilean).

Obraren egilea, Valentín Dueñas eskultorea, nahiko ezezaguna da gaur egun oraindik. Duela gutxira arte ez zen ageri haren aipamenik historiografian; hortaz, funtsezkoa da, lehenik eta behin, hari buruzko zertzelada biografiko eta artistiko labur batzuk ematea, museora ekarritako obrak dagokien garaiaren eta ekoizpenaren testuinguruan hobeto interpretatu ahal izateko. Flores Kaperotxipik XX. mendearen lehen erdiko euskal eskultoreen artean nabarmendu zuen Dueñas¹, eta honela definitu zuen Marrodánek haren obra: «Sortzaile kontzientzia erabatekoa ageri duen eskultura bat, planteamendu zintzoetatik abiatu eta gora etorria, zoritxarrez ezezaguna, baina balio aski baduena euskal arlo estetikoan agertzeko»². Egile horiek alde batera utzita, ordea, ondorengo ikerketetan ez dute aintzat hartu edo gutxietsi egin dute. Gutxiespenen artean, aipatzekoa da, adibidez, Plazaolarena, zeinak baitio Dueñas zela «kategoria apaleko» eskultorea³; baita Josefina Alixena ere, mintzo baita «entitate txikiko» ekoizpenaz⁴; Barañano, González de Durana eta Juaristiren arabera, halaber, Paco Durriorenaren «errepikapen soila» da haren artea⁵. Xabier Sáenz de Gorbeak eskaini zion lehen aldiz, 1984an⁶, azterketa biografiko eta artistiko labur baina oso argigarri bat, gerora egin diren ikerketetarako funtsezkoa; hark aldarrikatu zuenez, modernitatea bilatzen duen artista originala da Dueñas⁷. Azkenik, 2013an, haren lehen urteei eta Parisen pentsiodun modura egindako garaiari buruzko datu berriak eman zituen Sotok⁸.

* Artikulu hau «Mapa eskulturen ofizioen mapa, 1775-1936. Lanbidea, merkatua eta erakundeak: Bartzelonatik Latinoamerikara», HAR 2013-43715P (Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa. Espainia. I + G Proiektuak). Eskerrak eman nahi dizkiet Roberto Sterlingi eta Pedro Ericeri, baita Bilboko Arte Ederretako Museoko langileei, batez ere Miriam Alzuri, Javier Novo eta Mikel Urizarri, prestaketan emandako laguntzagatik.

1 Flores 1954, 123. or.

2 Marrodán 1980, 120. or.

3 Plazaola 1982, 202. or.

4 Madril 1985, 96. or.

5 Barañano/González de Durana/Juaristi 1987, 251. or.

6 Bilbao 1984, 52.-55. or.

7 Sáenz de Gorbea 2004, 117. or.

8 Soto 2013, 60.-65. or.



© Babestutako materiala

1. Valentín Dueñas (Bilbao, 1888-Madril, 1952)
Munoa jauregiko jangelako tximinia, c. 1919
Marmol gorria eta brontzea. 340 x 142 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Inb. zenb.: DEP3467

Dueñasek Bilboko Arte Ederren Museoan dituen obren analisiari ekin aurretik, Echevarría Echevarrieta familiak hari egin zizkion enkarguen testuinguruan kokatuko dira obra horiek artikuluko honetan. Aurrerago ikusiko dugunez, familia hura izan zen, hain zuzen, Dueñasen babesle nagusietakoa.

Valentín Dueñas: zertzelada biografiko eta artistiko labur batzuk

Jaiotza, familia eta hasierako ikasketak (1888-1912)

Valentín José Dueñas Zaballa [2. ir.] Bilbon jaio zen, 1888ko abenduaren 16an, goizeko hamarretan, eta Bariko San Nikolas parrokian bataiatu zuten, hil beraren 23an⁹. Cesáreo Dueñas Olalla eta Marcela Zaballa Muga senar-emazteen legezko semea zen, zortzi anai-arrebetan bigarrena: lehena, Enrique Eugenio, 1887ko uztailaren 13an jaio zen, eta haren ondotik etorri ziren María Felipa, 1891ko maiatzaren 1ekoa¹⁰; Celia, 1892ko abenduaren 15ean jaioa eta txikitan hila, 1893ko martxoaren 7an, bronkitisak jota¹¹; Eugenio Domingo, 1894ko irailaren 21ekoa¹²; Dolores, 1896ko irailaren 18koa¹³; Celia Anastasia, 1898ko ekainaren 20koa¹⁴, eta Cesáreo, 1905eko abuztuaren 18koa¹⁵.

Garai hartan, etapa oparo baten atarian zegoen Bilbao: orduan sumatzen hasi zen geroagoko historian nabarmendu zen hazkunde ekonomikoaren bizkorraldia. Dueroko markesaren eskutik karlisten azken setioa amaitutakoan (1874ko maiatzaren 2a), Espainiako siderurgia berriaren gune nagusia bihurtu zen Bilbao. 1880. eta 1892. urteen bitartean izan zuen bultzada handiena siderurgiak, eta 1902an izan zuen jarraipena, Bizkaiko Labe Garaiak sortu zirenean. Garapen industrial hari esker, eta meatzeen ustiapenari, ontzigintzari eta itsas merkataritzari esker, bilakaera ekonomiko ikusgarria izan zuen hiriak, baita hazkunde demografiko eta urbano handia ere. Hala, Nerbioiren ezkeralderako zabalguneko proiektu bat onartu zen 1876an, eta hiriko biztanle kopurua ia hiru halako egin zen 1900. urterako: laurogei mila biztanletik gora zituen. Burges berri, liberal, progresista eta irekiek osatzen zuten, hein handi batean, biztanleria hura, eta haiek izan ziren mende aldaketan arteek izandako loraldiaren sustatzaileak, tokiko eta probintziako administrazioarekin batera. Eta haien artean zen Echevarrieta familia.

Valentín Itxaropen kaleko 22. zenbakian jaio zen, bigarren solairuan, eskuinean; hantxe bizi izan zen familia 1887tik gutxienez¹⁶, baina laugarren solairura aldatu ziren gero, eta, datuen arabera, han jarraitzen zuen 1891ko maiatzean¹⁷. Artistaren haurtzaroan, behin baino gehiagotan aldatu zuen familiak bizitokia, ibaiadarraren alde batera eta bestera. Hain zuzen ere, honako helbide eta data hauetan dago dokumentatuta Dueñas familiaren presentzia: Colón de Larreategui kalean, bosgarren solairuko B letran (1892-1894)¹⁸, eta eraikin hartako behe solairuan (1894-1896)¹⁹; Iturrubide kaleko 2. zenbakiko lehen solairuan, 1898an²⁰;

9 Bilboko Erregistro Zibila, 42/2 alea, 12. fol.; Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia-Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa (AHEB/BEHA), Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1887-1895), 98. or.

10 AHEB/BEHA, Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1887-1895), 10. or (Enrique Eugenio) eta 243. or (María Felipa).

11 AHEB/BEHA, San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1892-1893), 65. or.; Bariko San Nikolaseko hildakoen liburua (1893), 74.-75. or.

12 AHEB/BEHA, San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1894), 396.-397. or.

13 AHEB/BEHA, San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1896-1897), 53. or.

14 AHEB/BEHA, Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1895-1903), 153. or.

15 Bilboko Erregistro Zibila, 6/3 alea, 86. fol.

16 AHEB/BEHA, Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1887-1895), 10. eta 98. or.

17 Ibid., 243. or.

18 AHEB/BEHA, San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1892-1893), 65. or.; San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1894), 396.-397. or.

19 AHEB/BEHA, San Bizente Martiriko bataiatuen liburua (1896-1897), 53. or.

20 AHEB/BEHA, Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1895-1903), 153. or.



© Babestutako materiala

2. Valentín Dueñas, c. 1903-1907
Añamendi Eusko Entziklopedia

Itxaropen kaleko 28. zenbakiko bigarren solairuan, berriro ere, 1901ean²¹, eta, aurrerago, 1904tik aurrera, Ledesma kalean, 12. zenbakiko seigarren solairuan²². Jakin dugunez, Colón de Larreategui kaleko behe solairuan, B letran, taberna bat izan zuten: Cesáreo zen tabernaria, emaztearekin batera, eta 1896ko urtarrilaren 1etik 1897ko azaroaren 15era arte jardun zuten han, gutxienez; data horretan, Iturribide kaleko 4. zenbakiko behe solairura aldatu zuten ostatua²³. Artistaren amari buruz ez dago ia beste berririk: Julián Zaballa Peñaren eta Anastasia Muga Torreren alaba zela eta Barrasa de Menan sortua zela (Burgos), besterik ez. Aita, berriz, 1857an jaio zen, Astudillon (Palentzia), eta José Dueñas González eta Victoria Olalla Alonso zituen gurasoak²⁴. Cesáreoren lanbide nagusia, nolahi ere, ez zen izan tabernakoa²⁵: zizelkaria zen, eta lanbide horretan jardun zuen beren tailerretan –Itxaropen kaleko 24. zenbakian 1888an zabaldukoan²⁶ eta 1908an

21 Archivo Histórico Foral de Bizkaia/Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (=AHFB/BFAH), Cesáreo Dueñas Olallak aurkeztutako eskariari erantzunez Bilboko Udalak izapidetutako espediente; eskari hartan, Colón de Larreategui kaleko B letrako tabernari 1901eko lehen lauhilekoko ur horniduragatik zordundutako erreziho baten kontra jo zuten eskatzaileak, argudiatuz bere izenean baja emana zuela taberna 1897ko azarotik. Bilbao Quinta 0086/009.

22 AHFB/BFAH, Cesáreo Dueñasek aurkeztutako eskariari erantzunez Bilboko Udalak izapidetutako espediente; eskari hartan, eskatzaileak baimena eskatzen zuen errotilu bat ezartzeko, Hurtado de Amézaga kaleko 12. zenbakiko zizelkatze tailerlean. Bilbao Primera 0316/074; AHFB/BFAH, Valentín Dueñas jaunak eskatu zuen pentsio bat eman diezaiotela, atzerrian ikasketak osatu ahal izateko, eskultore gisa. Artes, 1204. kutxa, 9. esp.

23 AHFB/BFAH, Hiribilduko bizilagun Cesáreo Dueñasek aurkeztutako eskariari erantzunez Bilboko Udalak izapidetutako espediente; eskari hartan, Colón de Larreategui kaleko B letrako etxean taberna irekitzeko baimena eskatu zuen eskatzaileak. Bilbao Tercera 0165/011; AHFB/BFAH, Cesáreo Dueñasek aurkeztutako eskariari erantzunez Bilboko Udalak izapidetutako espediente; eskari hartan, Colón de Larreategui kaleko B letran jarritako taberna bati zerga arloko baja emateko eskatu zuen eskatzaileak. Bilbao Cuarta 0428/007; AHFB/BFAH, Bilboko Udalak izapidetutako espediente, Bilbao Quinta 0086/009. Espediente hura zela-eta, gorabehera txiki batzuk gertatu ziren; adibidez, 1899an Sebastián Mateo Zaldibarrek eragina, zauritu baitzuen arma zuriz Julián Olalla Azcona, Olalla Azconak eskatu ziolarik Marcela Zaballari zorretan utzitako edariak ordaintzeko. AHFB/BFAH, Seguridad Pública, Guerras y Servicio Militar, AQ00114/268. sign.

24 AHFB/BEHA, Bariko San Nikolaseko bataiatuen liburua (1887-1895), 98. or.

25 Eugenio Domingoren bataio agirian, «industrialari» modura ageri da, adibidez.

26 AHFB/BFAH, Hiribilduko bizilagun Cesáreo Dueñasek aurkeztutako eskariari erantzunez Bilboko Udalak izapidetutako espediente; eskari horretan, Itxaropen kaleko 24. zenbakiko tailerlean errotilua jartzeko baimena eskatu zuen eskatzaileak. Bilbao Tercera 0077/096.

Hurtado de Amézaga kaleko 12an jarritakoan²⁷, adibidez–, baita, seguru asko, besteren kontura ere. Tartean, bertan behera utzi bide zituen zizelkari lanak taberna zabalik izan zuten garaian, seguru asko, eta, zalantzarik gabe, 1903ko urriaren erdialdera, atxilotu eta espetxeratu egin baitzuten Marcos de Marañón Martínezen hiltzailea izateaz salatuta²⁸. Aurrerago egiaztatu zenez, errugabea zen Cesáreo –ezkertiar ezaguna, Casino Republicanoko idazkaria–, eta laster utzi zuten aske; baina, hala ere, preso eduki zuten urriaren 14tik abenduaren 30era, urriaren 11n Begoñako santutegiko prozesioa Bilboko Areatzako pasealekuan zihoala langile errepublikanoek eragindako istiluak zirela-eta asko nahastu baitzen ikerketa eta zailtasun handiak izan baitziren gertaera haiek argitzeko²⁹.

Valentín Dueñasen familiako gainerako kideei buruzko beste daturik ez dago ia, Enrique anaiari dagokionez izan ezik. Aitarenekin lanbide bera hartu zuen Enriquek. Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan ibili zen 1898. eta 1908. urteen bitartean, Langilearen Irakaskuntza zeritzon arlo artistikoan, eta zenbait sari lortu zituen arlo horretan³⁰. Gerora, dena dela, Bilboko Udaleko Diruzaintzan lan egin zuen, administrazioko zenbait lanpostutan³¹.

Valentínek ere Arte eta Lanbide Eskolan egin zituen ikasketak, 1899tik aurrera. Lehen ikasturtean Irudien marrazketa-estapan kopiatu ikasgaia landu zuen, baita gainditu ere. 1900-1901 ikasturtean, berriz, Irudien marrazketa-igeltsuaren kopiatu delako ikasgaia gainditu zuen, eta, hurrengoan, nota bera lortu zuen Irudien marrazketa-bizirik egindako kopiatu ikasgaietan. 1902. eta 1904. urteen bitartean, Apaingarrien marrazketa-estapan kopiako eta igeltsuaren kopiako eskolak hartu zituen, eta *accésit* bat eta bigarren saria eskuratu zituen, hurrenez hurren, baita hirugarren mailako iraunkortasun sari bat ere, 20 pezetakoa. Azkenik, 1904tik 1906ra, Irudien marrazketako eskolak hartu zituen, berriro, eta bi bigarren sari lortu zituen³².

1906. eta 1909. urteen bitartean, Viuda de Salces ikasketetarako diru-laguntzaren onuradun izan zen. Beren portaeratik eta gaitasunengatik nabarmentzen ziren baina baliabide askorik ez zuten hemezortzi urtetik beherako gazteei begirako laguntza txiki bat zen, Udalak kudeatua, Anselma de Salcesek egindako legatuari esker. Eskultore edo dekorazio arteen sortzaileei eman ohi zioten laguntza hura, oro har. Dirutan sari txikia izan arren (urteko 759 pezeta), Bilbon ikasten jarraitzeko aukera ematen zien gazteei. Eta halaxe egin zuen Valentínek –garai hartan, Ledesma kaleko 12. zenbakian bizi zen–, Quintín de Torreren tailerrean ikastun gisa lanean ari zen bitartean (1877-1966)³³. Bitarte hartan, Arte eta Lanbide Eskolan jarraitu zuen: 1906. eta 1909. urteen bitartean, Irudien marrazketa-bizirik egindako ikerketa landu zuen, eta hiru bigarren sari lortu zituen; 1906ko urritik azarora, berriz, Modelatzea ikasi zuen, baina bertan behera utzi zuen³⁴, Torreren tailerreko ikaskuntza nahikotzat jota, seguru asko. Dokumentazioan ageri denez, halaber, Parisen pentsiodun egindako egonaldia amaitzeraino, «kalifikazio o horagarriak jarri zizkidan Epaimahaiak nire ariketetan, eta iragan azaroaren 19an [1909] Udalak egindako jendaurreko saioan erabaki zuen Arterako nire prestutasunagatik saritzea eta zoriontzea»³⁵.

27 AHFB/BFAH, Espedientea..., Bilbao Primera 0316/074.

28 AHFB/BFAH, Cesáreo Dueñas Zaballaren kontrako kausa, Judiziala, Bilboko Instrukzio Auzitegia, Kriminala, JCR0389/010 sign.; AHFB/BFAH, Cesáreo de Dueñas Olalla prozesatuaren behin-behineko espetxeratzeari buruzko atala, Judiziala, Bilboko Instrukzio Auzitegia, Kriminala, JCR0389/012 sign.; AHFB/BFAH, Cesáreo de Dueñas Olalla prozesatuaren kaudimenik ezari buruzko atala, Judiziala, Bilboko Instrukzio Auzitegia, Kriminala, JCR0389/013 sign.

29 Ibid.

30 Archivo Histórico de la Escuela de Artes y Oficios, Instituto Emilio Campuzano (=AHEC), Libro de Registro-Enseñanza del Obrero, 20, 322. or.

31 Ikus AHFB/BFAH, Bilbao Segunda 0655/008; Bilbao Sexta 0098/017; Bilbao Sexta 196/106; Bilbao Sexta 0024/167; Bilbao Decimosexta 0009/693.

32 AHEC, Libro de Registro-Enseñanza del Obrero, 21, 77. or.

33 Soto 2010a, 63. or.

34 AHEC, Libro de Registro-Enseñanza Profesional, 2, 1900-1910, 304. or.

35 AHFB/BFAH, D. Valentín Dueñas..., Artes, 1204. kutxa, 9. esp.

Ez dago eskultorearen garai hartako datu askoz gehiago. Jakina da, dena dela, soldadutzara deitu zutela 1909an; hain zuzen ere, artikulu bat baino gehiago argitaratu ziren tokiko prentsan, artezale grinatsu eta dirudunen batek 6.000 erreal ordain zituan, hura soldadutzatik eta, horrekin batera, bi urtez karrera artistikoa bertan behera utzi behar izatetik libratzeko. Dueñas babestu zuten, besteak beste, *El Nervión* egunkariak eta Pepe Muñagorri nobilleroak, baina, azkenik, emaile ezezagun batek jarri zuen dirua³⁶.

Parisko egonaldia eta lehen lanak (1910-1916)³⁷

1910eko urtarrilaren 10ean, beste diru-laguntza bat eskatu zuen Valentín Dueñasek, Bizkaiko Aldundiari, zehazki³⁸. Aldez aurretik ere beste artista batzuei diru-laguntzak eman izan zizkien erakunde hark, ikasketak atzerrian osatu ahal izateko, Nemesio Mogrobejori (1875-1910) eta Quintín de Torreri berari, adibidez. Bere idatzian, Torreren tailerrean egindako hiru urteak aipatu zituen Dueñasek merezimendu gisa, baita Viuda de Salces laguntzaren onuradun zela lortutako kalifikazioak ere, eta Arte eta Lanbide Eskolako notak. Eskultura lanen hiru argazki ere erantsi zituen³⁹. Otsailaren 22ko bilkuran erabaki zuen Batzordeak urteko 2.500 pezetako diru-laguntza ematea, bi urterako; laguntza edo pentsio horren trukean, bizitik modelatutako irudi bat aurkeztu beharko zien bere lanen erakusgarri modura, lehen urtean, eta gai libre bati buruzko bi irudiko gai multzo bat, bigarrean.

Valentín Parisera aldatu zen, orduan. Han, Paco Durrio eskultorearengana jo zuen (1868-1940), eta harenean jarri zen bizitzen, Impasse Girardoneko 4. zenbakian⁴⁰. Ez dakigu Durrio aldez aurretik ezaguna ote zuen, norbaitek gomendatuta joan ote zen harengana edo, besterik gabe, Parisen finkatutako beste espainiar artista askok bezala, haren abegi onaren berri bazuelako jo ote zuen harengana. Seguru asko, Durriok Bilbora egindako bidaiaren batean ezagutuko zuen, edo Quintín de la Torreren gomendioz joko zuen harengana. Edonola ere, Dueñasentzat maisu benetakoa izan zen Durrio harrezkerok, eta ikasleak bere egin zituen haren ideia artistikoak: haren gaiak, ikonografiak eta estilo primitibista, modelatu labur eta sintetikokoa. Horrez gainera, haren proiektuetan lankidetzan jardun zuen hasieratik⁴¹, eta, aurrerago, Durrioren zenbait obrari azken ukitua emateko enkargua ere jaso zuen: Dueñasek amaitu ez balitu, sekula ez ziren osatuko obra haiek, seguru asko. Horietakoak dira, adibidez, Bilboko Arte Ederren Museoaren alboan ezarritako *Juan Crisóstomo de Arriagaren monumentua*⁴², eta *Echevarrieta familiarentzako panteoia*, Getxon (Bizkaia)⁴³. Bestalde, urte hartan bertan (1910) busto bat jarri zuen Valentínek Bilboko Kale Nagusiko erakusleihu batean erakusgai⁴⁴.

Dueñasek ezin izan zituen bekaren bi urteak osatu, 1911n bertan behera utzi baitzuten, Diputazioaren pentsioetarako arautegi eta oposizio deialdi berria antolatzen ari zirelako; 1912ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean arautegi berria⁴⁵. Uste izatekoa da ordurako entregatuta izango zuela lehen igorpena, baina ez

36 Laureano Marcaida. «Por un joven artista. Valentín Dueñas», *El Liberal*, Bilbao, 1909ko otsailaren 27a, 2. or.; «Por un joven artista. Valentín Dueñas», *El Liberal*, Bilbao, 1909ko martxoaren 5a, 2. or.; «En favor de un joven artista», *El Nervión*, Bilbao, 1909ko martxoaren 2a, 2. or.; «Testimonio de gratitud», *El Nervión*, Bilbao, 1909ko martxoaren 6a, 2. or.; Laureano Marcaida. «Por un joven artista. Valentín Dueñas», *El Liberal*, Bilbao, 1909ko martxoaren 8a, 1. or. Alderdi biografiko horiek (1906-1909 urteak) jasota daude honako honetan: Soto 2013, 61.

37 Ikus Soto 2013, 62.-65. or.

38 AHFB/BFAH, D. Valentín Dueñas..., Artes, 1204. kutxa, 9. esp.

39 Zoritxarrez, ez dira espedienteen gorde.

40 AHFB/BFAH, Oposiciones a la Pensión Superior de Escultura, Artes, 2. kutxa, 18. esp.

41 1910eko abenduan, dagoeneko lantzen hasita zegoen *Arriagaren monumentua*, lekukotasun honen arabera: «El monumento a Arriaga», *El Pueblo Vasco*, Bilbao, 1910eko abenduaren 23a, 1. or.

42 Durriorekin *Arriagaren monumentuan* izandako lankidetzari buruz, ikus, batik bat, Soto 2010b, Bilbao 2013, Amezaga 2013.

43 Sáenz de Gorbea 2004, 123. or.

44 Bilbao 1984, 52. or.

45 AHFB/BFAH, Bizkaiko Foru Aldundiak 1912ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zuen Euskal Artisten Pentsioen arautegia, 1911ko urriaren 3ko erabakiaren arabera egin beharreko aldaketak eginda, Artes, Exposiciones y Becas, 1. kutxa, 5. esp.

da haren berririk aurkitu⁴⁶. Urte hartan bertan, 1912an, erakusgai jarri zuen emakume bat soslaiz ikusirik erakusten duen irudi bat, datatua, sinatua eta eskaintza hau zuena: «D. R. E. Su agradecido»⁴⁷ (Amalia Echevarrietaren ordezkarietzaz eta Don Rafael Echevarriari eskainia).

1912ko abuztuaren 3an Bizkaiko Probintziako Buletin Ofizialean argitaratutako pentsio edo laguntza deialdian, eskultura arloko goi mailako pentsiodun izateko plaza bat aipatzen zuen. Dueñasek plaza hura bereganatzeko lehian jardun zuen José María Garrós Reguant, José Larrea Echaniz eta Manuel V. Moreno San Románekin; Larrea, dena dela, probak hasi aurretik baztertu zuten, eztabaida luze baten ondoren, epaimahaiak erabaki zuelarik haren aitak bazuela semea atzerrira igortzeko diru aski⁴⁸. Hauek ziren eskulturako epaimahaiakideak: Indalecio Prieto eta José de Urizar diputatuak eta Higinio Basterra, José María Garrós Nogué (epaimahaia utzi zuen, hautagaien artean zegoelako bere semea, eta Federico Sáenzek hartu zuen haren tokia), Pedro Sorriguieta eta Quintín de Torre eskultoreak.

Irailaren 12an hasi ziren azterketak, marrazketako probarekin: bizitik harturiko irudi baten kopia egitean zetzan. Lehiakide guztiek gainditu zuten lehen ariketa, baina Valentín Dueñas gelditu zen lehen; Garrós, bigarren, eta Moreno, hirugarren⁴⁹. Bigarren proban, gai bibliko bati buruzko erliebe baten zirriborroa landu behar zuten—hiru gai zituzten aukeran: San Pedro eta San Joan, herrena sendatzen; Jairoren alabaren berpiztea, eta Abraham eta Lot banatzea—. Irailaren 16an hasi zen proba hura, eta, ordukoan ere, Dueñas izan zen lehena; Moreno gelditu zen bigarren, eta Garrós, hirugarren. Azken azterketa—soin bat modelatzea, besoduna, jarrera librean— irailaren 19an hasi zen. Lehiaketako obrak Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan ikusgai egon ziren urriaren 9tik 11ra, eta eskulturako pentsioa Valentín Dueñasi ematea erabaki zen, azkenik, aho batez. Moreno gelditu zen bigarren, eta Garrós, hirugarren. Edonola ere, atzerrian nora joan beharko zuen abenduaren amaierara arte ez zuen argitu epaimahaiak: Paris esleitu zioten, azkenik⁵⁰.

Hala, 1913ko urtarrilaren hasieran, Frantziako hiriburura itzuli ahal izan zen Dueñas. Paco Durriorengandik hurbil jarri zen bizitzen, Impasse Girardoneko 2. zenbakian. Han, arte akademia libre batean hasi zen ikasten. Urte hartan igorri zuen pentsioari zegokion lehen lana: bizitik egindako irudi biluzi bat, igeltsuzkoa. 1913ko abenduan iritsi zen obra Bilbora, eta Probintziako Jauregian jarri zuten erakusgai. Ohorezko kalifikazioa eman zioten lan harengatik, baita hari zegokion diru saria ere: 500 pezeta. Egileak Aldundiari eman zion obra, dohaintza modura⁵¹.

1913an, halaber, Euskal Artisten Elkarteak antolatutako Arte Modernoko Erakusketan parte hartu zuen Dueñasek; izan ere, talde hartako kidea izan zen, urte hartatik, gutxienez. Buru baten estudioa, busto erretratu bat eta irudi baten estudioa (pentsiodun gisa igorritako lehen lanerako prestatua, seguru asko) eraman zituen erakusketa hartara, baita behe erliebe bat ere (katalogoko 75.etik 78.era bitarteko zenbakiak)⁵².

Lehen Mundu Gerra eta Europako egoera politiko eta ekonomiko orokor nahasia zirela-eta, zailtasunak izan zituen bigarren urteko lana igortzeko. 1914ko abuztuan, Aldundira idatzi zuen artistak, esanez Paristik alde egin zuela eta lana prest eta igeltsutan hustuta zuen arren ezinezkoa zitzaiola hura bidaltzea (*Mina* izeneko

46 Sáenz de Gorbeak dioenez, nolana ere, ez zuen diru-laguntza hura jaso, eta, arrazoi hura zela eta, Cesáreo aitak dokumentazioa erretiratu zuen apirilaren 29an (Bilbao 1984, 52. or.).

47 Ibid.

48 AHFB/BFAH, La Diputación Provincial..., Artes, Exposiciones y Becas, 1. kutxa, 5. esp. Gai honi buruz, ikus: Soto 2013, 63. or.

49 AHFB/BFAH, Oposiciones a la Pensión..., Artes, 2. kutxa, 18. esp.

50 «El pensionado Dueñas», *El Noticiero bilbaíno*, Bilbao, 1912ko abenduaren 22a, 1. or.

51 Ez dago igeltsu horren kokalekuaren berri, gaur egun; suntsituta egongo da, seguru asko.

52 Bilbao 1984, 52. or.; Mur 1985, 13. eta 201. or.



3. Valentín Dueñas
Ninfa, 1915
 Harria. 153 cm (altuera)
 La Concepción, Málagaako Lorategi Botaniko-Historikoa

bi irudiko multzoa), bertan behera gelditu zelako Frantziaren eta Espainiaren arteko salgaien garraioa. Lan hura garaiz iritsiko ez zela ikusirik, beste obraren bat egiteko asmoa zuen (azkenean ez zuen egin), kalifikazioa eman behar zuen epaimahaiari bidaltzeko hura ere. Batzordeak onespena eman zion, baita baimen berezi bat ere bi hilabetez Bilbon bizitzeko, baina baldintza jarririk Espainiako beste tokiren batera joango zela, gero, ikasketak osatzera, baldin eta Parisera itzultzea ezinezkoa bazitzaion. Urrian Frantziako hiriburura itzultzea lortu zuen Dueñasek, azkenik, eta Bilbora bidali ahal izan zuen bere multzoa; hala, bada, behar bezala bete zen haren pentsioa.

Mina abenduaren 2tik 22ra egon zen Bilboko Arte Ederren Museoan erakusgai, eta lan harekin ere ohorezko kalifikazioa lortu zuen, nahiz eta kontra agertu zen Higinio Basterra, baita Francisco Iribarne kritikaria ere, zeinak idatzi baitzuen tokiko egunkari batean: «Valentín Dueñasek eskultore eskuak ditu; badaki nabarmen-tzen soin baten, belaun baten edo beso baten adierazkortasuna; erliebearen arte horretan urteak egin dai-tezke eta egin behar dira lanean; ez da inoiz aski jakiten; baina, gero, gehiago egin behar da: behin betiko anatomia bat bilatu behar da, dena argituko duen erritmo bat; hasi azalaren erlieberik txikienetik eta irudien jarrera orokorrera, ezinbestekoa da den-denak erantzutea espiritu horri, ideia horri, mugimendu espiritual eta zehaztezin horri»⁵³.


Bigarren igorpenaren ordainetan jasotako 500 pezetako saria Espainiako probintzietan barrena prestakuntza bidaia bat egiteko erabili zuen Dueñasek. 1915aren hasieran egin zuen bidaia, eta litekeena da, prestakuntza bidaia ez ezik, eztei bidaia ere izatea, Ángeles Corto Barreras gazte bilbotarrarekin (1892-?) ezkondu baitzen 1915eko otsailaren 6an, Bilboko San Antonio Abadearen elizan⁵⁴. Gero, Parisera itzuli zen; hantxe zen urte hartako otsailaren amaierarako.

53 Francisco Iribarne. «Las esculturas de Valentín Dueñas», *El Pueblo Vasco*, Bilbao, 1914ko abenduaren 11, 2. or.

54 AHEB/BEHA, San Antonio Abateko ezkonduen liburua, 33 zenb., 78. or.; AHEB/BEHA, Joan Santuen elizako bataiatuen liburua (1892), 381. or.



En el Museo de Bellas Artes, de Bilbao



1 y 2. Notables trabajos escultóricos que forman parte de la Exposición organizada en el Museo de Bellas Artes de Bilbao por D. Valentín Dueñas, pensionado por la Diputación bilbaína.—3. Hermoso estudio escultórico de D. Moisés Huertas, que figura en el expresado Museo.

· Fot. Amado ·

4. Valentín Dueñasen lanak, *Novedades* aldizkarian erreproduzitutakoak, Donostia, 1915eko abenduaren 12a Koldo Mitxelena Liburutegia, Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.



© Babestutako materiala

5. Valentín Dueñas
Barkamena, 1915
 Eskaiola. 125 x 125 cm
 Kokapen ezezaguna
 Auñamendi Eusko Entziklopedia

1915ean, arauzko hirugarren lana egin zuen Parisen: behe erliebe baten zirriborroa, laugarren urteari zegokion igorpena, eta igeltsuzko estatua bat, azaroan bidali zuena, kalifikatzeko. Abenduaren 6tik 22ra ikusgarri jarri zituzten biak Bilboko Arte Ederren Museoan; baina, oraingoan, tarteko kalifikazioa lortu zuen —«betetzen ditu arauzko betebeharrak»—, garai batean maisu izan zuen Quintín de Torrek kalifikazio haren kontrako botoa eman bazuen ere, ohorezko aipamena eman nahi baitzion hark. Eskulturak —neurri naturalekoa— emakume eseri bat irudikatzen zuen, ontzi bat zuena besoan [3. ir.], eta, dirudienez, beste emakumezko irudi batekin batera igorri zuen, hura ere eseria eta bere baitara bildua, aurrekoaren antzeko jarreran [4. ir.]. Argi sumatzen da nola batean hala bestean Quintín de Torreren adierazkortasunaren eragina, Antoine Bourdellek giharrei ematen zien tratamenduaren eragina bezala (1861-1929), baita Durrioren sintetismoarena eta simbolismoarena ere, zeinak ikusten baitira, halaber, Dueñasek panteoietarako egindako lanetan. Urte hartan, gainera, arte Ederretako Erakusketa Nazionalen parte hartu zuen, 125 x 125 cm-ko igeltsu batekin —*Barkamena* [5. ir.]— eta material beraz egindako *Bustoa* lanarekin⁵⁵. Erakusketa hartan banatutako hirugarren mailako zortzi dominetako bat eman zioten bi lan horietako lehenari, baita 500 pezetako bidai laguntza bat ere, obra saritu arren estatuak ez erosiz gero esleitzen zirenetakoa⁵⁶. Obra hari buruz zera zioen garai hartako prentsak: «Lilura eragiten du, artistak halako multzo konplexua eraikitzeke gainditu behar izan dituen zailtasunengatik; multzoko irudiak adiskidetze besarkada batean estu lotuta daude, eta modelatzeko antzearen ikerketa serio eta saiaturia erakusten du obrak»⁵⁷.

55 Madril 1915, 48. or. (701.-702. zenb.).

56 «Bellas Artes. Premios de la exposición», *ABC*, Madril, 1915eko uztailaren 18a, 15. or.; «Exposición de Bellas Artes», *El Imparcial*, Madril, 1915eko maiatzaren 13a, 3. or.; «Artes y Artistas. Adquisición de obras», *La Correspondencia de España*, Madril, 1915eko uztailaren 4a, 6. or.; «Los premios de la Exposición. Obras adquiridas por el Estado», *La Época*, Madril, 1915eko uztailaren 17a, 3. or.; Pantorba 1980, 228. eta 397. or.; Bilbao 1984, 52. or.; Caparrós 2014, 414.-416. or., 426. eta 528. or.

57 J. del C. «La Exposición de Bellas Artes. XII. Escultura», *La Correspondencia de España*, Madril, 1915eko uztailaren 4a, 6. or.

Gerra gorabehera, Dueñasek garaiz igorri zuen Parisko azken lana, 1916ko azaroan: igeltsuzko erliebe bat. Bilboko Arte Ederren Museoan erakusgai jarri zuten, ohi bezala, eta epaimahaiaren ohorezko kalifikazioa lortu zuen, nahiz eta, aktan bertan esaten zenez, «maisulan bat» ez izan; zehaztapen hura egin bide zuten *Orfeoren heriotza* zeritzon Nemesio Mogrobejoren laugarren urteko igorpenetik bereizteko, 1907an «aipamen oso bereziaz» kalifikatu baitzuten⁵⁸. Hil hartan bertan, Madrilen egin zen Euskal Artisten Elkartearen Erakusketan parte hartu zuen, erretratu batekin eta figuratxo batekin (katalogoko 213. eta 214. zenbakiak), eta abendutik 1917ko urtarrilera lan haiek berak erakutsi zituen Bartzelonan egindako beste erakusketa batean (150. eta 151. zenbakiak)⁵⁹.

Espainiara itzultzea eta Madrilen finkatzea (1917-1936)

Ez dago zehatz jakiterik Valentín Dueñas zer unetan itzuli zen Espainiara, baina baliteke 1917. urte inguruan izatea, pentsioa amaitu zitzaionean. Madrilen bizitokia hartzea erabaki zuen; hangoa zen emaztearen amaren aldeko familia, eta, seguru asko, etxekoen izango zuen bikoteak hiriburuan bizitzen jartzeko⁶⁰. Hantxe erroldatuta ageri da Dueñas 1920az geroztik behintzat, Gerra Zibilean eta gerraondoko lehen urteetan izan ezik; bitarte horretan beste herriren batean biziko zen, agian⁶¹. Madrilen egindako etapan, jakina da zenbait etxetan bizi izan zela alokairuan: lehenengo, Jorge Juan kaleko 68. zenbakiko beheko solairu-dendan⁶²; 1924tik aurrera, Lope de Rueda kaleko 17. zenbakian, bigarren solairuan, eskuinean⁶³; gero, bere jabetzako etxe batean, Vascos kaleko 10. zenbakian, etxe hura konpondu eta tailer gisa erabiliz⁶⁴, eta, azkenik, maizter gisa, berriro ere, Maudes kaleko 9. zenbakian, hirugarren ezkerrean⁶⁵, eta Maudesko 11. zenbakiko laugarren solairuko kanpoko aldeko etxebizitzan, nahiz eta Vascos kalean zuen, orduan, tailerra⁶⁶.

Urte haietan, harreman iraunkorra izan zuen Bilborekin, bai proiektuak exekutatzeari loturik, baita erakusketei loturik ere. Derioko Vista Alegreko hilerrian (Bizkaia), Martín de Aldama, Echevarría la Llana (Rafael Echevarriaren enkarguz, agian, edo, gutxienez, haren bidez) eta Ricarda Esteban familien panteoiak egin zituen⁶⁷; obra horietan guztietan, agerikoa da Quintín de Torre, Paco Durrio eta Paul Gauguinen eskultura ekoizpenarekiko lotura estua, modernitatea eta antzinatasuna, laburtasunaren, primitibotasunaren eta adierazkortasunaren bilaketa, egiptoar artearen eta greziar eskultura arkaikoko *koreen* eraginpean. Erakusketei dagokienez, 1917an Euskal Artisten Elkartearen erakusketan parte hartu zuen, erloju eredu batekin –«R. E.»rentzat (Rafael Echevarría?) brontzean urtzekoa–, eta Alfonso W. Sena Manterolaren erakusketan, lorontzi batekin⁶⁸. Urte hartan bertan, Pío Barojaren omenez Artxandako (Bilbao) jatetxe batean egindako oturuntza

58 Gai honi buruz, ikus Soto 2013, 56. or.

59 Juan de la Encina. «La Semana Artística. Los Artistas Vascos», *España*, Madril, 1916ko azaroaren 23a, 10 or.; Mur 1985, 243. eta 246. or.

60 Izan ere, udal erroldetan agertzen denez, Valentín eta Ángeles, haurrik gabeak, zenbait seniderekin bizi izan ziren: 1924an, Ángelesen anaia Sebastiánekin (musikaria) eta haren emazte María Luisa Agüerorekin; Antonio Corto ilobarekin eta anaia Cesáreo Dueñasekin, 1930ean, eta, azkenik, Ángeles Corto Abásolo ilobarekin, 1945az geroztik.

61 Ez dago 1935eko Madrilgo biztanleen erroldarik, baina 1940an egindakoan ez da ageri, agian hiriburutik kanpo biziko zelako garai hartan, Cesáreo anaia bezala, zeina zegoen Santoñan (Kantabria), nahiz eta haren emaztea, Cándida Díez, eta semeak, Juan María Dueñas Díez eta Cesáreo Dueñas Díez, Palma kaleko 15ean bizi (Archivo de la Villa, Madril (=AV), 940ko biztanle errolda, 42. alea, 12.116. orria).

62 AV, 1920ko biztanle errolda, 264. alea, 7.764. orria.

63 AV, 1925eko biztanle errolda, 281. alea, 10.982. orria.

64 AV, 1930eko biztanle errolda, 720. alea, 11.049. orria. 1930eko urrian, Valentín Dueñasek Madrilgo Udalari baimena eskatu zion Vascos kaleko 10. zenbakian berrikuntza eta handitze lanak egiteko. Serrano arkitektoa izango zen lan haien egilea («Bolsa de la construcción. Licencias solicitadas al Ayuntamiento de Madrid 15-30 octubre. Reforma y ampliación», *El Eco patronal*, Madril, 1930eko azaroaren 1a, 12. or.). 1932ko apirillean, alokairurako baimena eskatu zen («Bolsa de la construcción. Licencias solicitadas al Ayuntamiento de Madrid 15-30 abril. Licencias de alquiler», *El Eco patronal*, Madril, 1932ko maiatzaren 1a, 11. or.).

65 AV, 1945eko biztanle errolda, 98. alea, 30.810. orria.

66 AV, 1950eko biztanle errolda, 76. alea, 23.333. orria. Garai hartan, eraikina 14. zenbakia izatera pasatu zen.

67 Sáenz de Gorbea 2007, 8., 9. eta 17. zenb.

68 Bilbao 1984, 52. or.

polemiko batean parte hartu zuen⁶⁹, eta, handik bi urtera, pare bat obra aurkeztu zituen Bilboko Nazioarteko Pintura eta Eskultura Erakusketan: *Behe erliebea* (agian, orain aztergai dugun tximiniako behe erliebe nagusia) eta *Brontzea*⁷⁰. Erakusketa hartan, Bilboko Arte Ederren Museorako zenbait pieza erostea eskatu zen, baina, azkenean, ez zioten eskulturarik erosi, nahiz eta erakusketako epaimahaikide Nemesio Sobrevilak Dueñasen aldeko botoa eman, 17 punturekin⁷¹.

Bien bitartean, Madrilén, Gómez de la Serna larunbat gauetan Café Pombon antolatzen zuen tertuliarara joaten hasi zen, tarteka⁷², eta zenbait erakusketatan parte hartu zuen, halaber. 1920ko erakusketa nazionalan, *Ruth* igeltsuzko eskultura aurkeztu zuen⁷³; 200 x 8 cm-ko irudi biluzi bat, gerora Echevarría Echevarrietak erositako harrizko bertsioan [6. ir.], eta beste busto bat, material berekoa, *José Mari (euskal burua)*, 50 x 70 cm-koa. Dekorazio Arte atalean parte hartu zuen ordukoan ere, eta katalogoan ageri dira hark sortutako zilarrezko lau eraztun –*Musua, Gaua, Ametsa* eta *Gaizkiaren musua* izendatuak–, 42 x 19 cm-ko igeltsuzko estatua bat, *Eskaintza* izenekoa, eta brontzezko irudi bat, 30 x 12 cm-koa, *Bixiontzia* izenekoa⁷⁴. Ez dago jakiterik zer tankera zuten, baina izenburuek lotura estua dute Paco Durrioren bitxigintzan nagusitu ziren gai sinbolistekin, eta, hark artistarengan izan zuen eragina kontuan harturik, uste izatekoa da azken emaitza formalak ere haien tankeratik hurbilekoa izango zela.

Bi urte geroago, berriz agertu zen 1922ko Erakusketa Nazionalako Eskultura eta Dekorazio Arte atalean, hiru lanekin: *Cheles* (marmola, 50 x 22 cm), *Erretratua* (igeltsua, 50 x 22 cm) eta *Eskaintza* (erliebea, igeltsuan, 39 x 70 cm)⁷⁵. 1925ean, bi erliebe aurkeztu zituen Madrilgo Iberiarren Saloian⁷⁶: hain zuzen ere, areto nagusian jarri zituzten ikusgai, Juan Adsuara, Emiliano Barral, José Capuz, Ángel Ferrant, Victorio Macho, José Planes eta Quintín de Torreren beste eskultura batzuekin batera. Harrezkero, ez da beste inongo erakusketatan ageri, 1934ra arte; urte hartan, *Krisia* igeltsuzko eskultura aurkeztu zuen, 36 x 19 cm-koa, eta 2.000 pezetako salmenta prezioa ezarri zion brontzeari⁷⁷, Bilboko Artista Euskaldunen III. Erakusketan⁷⁸. Handik bi urtera, Euskal Artisten Elkarteak 1936ko maiatzaren 22tik ekainaren 10era bitartean Parisen egindako *Exposition de Peinture Basque* erakusketan ikusgai jarri zituen *Bust*, *Femme accroupie* eta *Sculpture*⁷⁹.

Xabier Sáenz de Gorbeak adierazitakoaren arabera, Madrilén, apaindura eskulturaren salerosketan eta beste eskultore batzuentzako galdatze eta lanketa eginkizunetan jardun zuen Valentín Dueñasek⁸⁰. Jakina da, adibidez, 1920an Nemesio Mogrobejoren *Orfeoren heriotza* erliebea galdatzen parte hartu zuela Calahorra Hermanos etxean (Madril)⁸¹, eta egile haren beraren *Eva* obraren brontzezko kopia egiteko ardura eman zio-

69 Ibid.

70 Bilbao 1919b, 378. eta 379. zenb.

71 AHFB/BFAH, Exposición Pintura y Escultura. Primera Exposición Internacional de Pintura y Escultura, patrocinada por la Excma. Diputación de Vizcaya, 1919. Cultura, C-1220-Exp. 2. Expediente horretan bildutako dokumentazio gehiena hemen argitaratua da: Barañano/González de Durana 1987. Lan horretako 176. orrialdean Dueñas aipatzen da.

72 Urtea aipatu ez arren, hartan parte hartu zuela aipatzen du Gómez de la Serna (Gómez de la Serna 1986a, 171. or.; Gómez de la Serna 1986b, 536. or.). Larunbat gauetan egiten zen tertulia, 1912 eta 1937 bitartean.

73 «Ruth (desnudo del natural), de Valentín Dueñas», honako honetan erreproduzitua: *Blanco y Negro*, Madril, 1920ko maiatzaren 23a, 38. or., 3. zenb.

74 Madril 1920, 451., 452., 582., 583. eta 584. zenb.

75 Madril 1922, 641., 642. eta 792. zenb.

76 Madril 1925, 13. eta 14. zenb. Elkarteari eta erakusketa honi buruz, ikus, bereziki, Madril 1995a eta Pérez Segura 2002.

77 Artxiboa, Bilboko Arte Ederren Museoa (=AMBAB), 13. zenb. inskripzio buletina, Artista Euskaldunen Erakusketa, 1934/1-1-2.

78 Bilbao 1934, 93. zenb.; Mur 1985, 297. or.

79 Mur 1985, 299.

80 Bilbao 1984, 52. or.

81 Bilboko Arte Ederren Museoa, 82/196. inb. zenb. AMBAB, Valentín Dueñasek Manuel Losadari idatzitako gutuna, Madril, 1920ko abenduaren 11, D. 276.



6. Valentín Dueñas
Ruth, 1920
 Harria
 Munoa Finkako lorategia, Barakaldoko Udala, Bizkaia

tela, Rafael Echevarriaren bidez⁸². 1930eko hamarkadan, Paco Durrio maisuarekin lanean aritu zen *Juan Crisóstomo de Arriagaren monumentuari* azken ukituak ematen –1933ko abuztuaren 13an inauguratu zuten⁸³–, baita Getxoko *Echevarrieta familiarentzako panteoian* ere –1903. eta 1923. urteen bitartean diseinatua⁸⁴, nahiz eta sarrerako hesia 1931n datatu duten, berriki⁸⁵–.


Era berean, Pedro Muguruza Otaño arkitektoaren (1893-1952) zenbait proiektutako apaingarriez arduratu zen. Apaingarri haien artean, aipatzekoak dira, besteak beste, Guadarramako Reina Victoria hoteleko friso bat, neguko kirolekin loturiko irudiak dituen; Espainiako Gurutze Gorriaren eraikineko apaingarriak, eta Mayo

82 Kopia horrek Málaga La Concepción etxaldeko lorategia apaindu zuen lehenik, eta Munoa jauregixokoa gero, bi kokalekuak Echevarría Echevarrieta sendiaren jabetzakoak. AMBAB, Valentín Dueñasek Manuel Losadari idatzitako gutuna, Madril, 1920ko abenduaren 11, D. 276; AMBAB, Rafael de Echevarriak Bilboko Arte Ederren Museoko Patronatuko presidenteari idatzitako gutuna, Barakaldo, 1921eko abuztuaren 8a, D. 392.

83 Durriorekin *Arriagaren monumentua* obran izandako lankidetzari buruz, ikus, bereziki, Soto 2010b, Bilbao 2013 eta Amezaga 2013.

84 Amezaga 2013, 74. or.

85 Bilbao 2013, 181.-186. or.



7. Pedro Muguruza Otaño (Madril, 1893-1952)
Casa de la Prensa etxearen diseinua. Fatxada nagusia, 1924ko ekaina
 Hiribilduko Artxiboa, Madrilgo Udala, 41-285-48. sign.

8. Valentín Dueñas
Oparotasuna, c. 1928
 Harri artifizialean egindako armari apaingarria, Casa de la Prensa etxerako, Madril

Hermanos kontratisten Madrilgo Padilla kaleko (Alcantara kaleko kantoian) etxe sail batekoak⁸⁶. Nolanahi ere, arkitekto harekin egindako lan nagusia Madrilgo Gran Vía kaleko Casa de la Prensakoa du (1924-1928) [7. ir.]: eraikin hartarako eskatu zizkieten fatxada guztiko eta antzokiko aretoko, eszenako ahoko, anfiteatroko eta atarteetako harri artifizialeko lanak; Murtziako harrizko irudi monumentalak, Prentsari loturiko gaiei buruzkoak, Tudescos kale aldeko dorretxoari eta erlaitzari buru emateko; Oparotasunaren armari alegorikoa eta Boterea adierazten duen medailoia, etxaldearen sarreran⁸⁷. Azken lan horietatik Oparotasunaren ezkutua soilik egin zen [8. ir.], fatxadako erliebe apaingarri batzuek gainera, eta bertan behera utzi ziren eraikinari buru emateko ezartzekoak ziren irudi monumentalak, aurrekontu faltagatik, agian. Enkargu horiei dagokiernez, aipatzekoa da Muguruzak harreman estua izan zuela Horacio Echevarrietarekin, zeina baitzuen bezero eta sustatzaile nagusietakoa; baita Casa de la Prensa etxea Echevarrietaren ekimenez eraiki zela ere, hain zuzen ere, hari eman baitzioten Madrilgo Gran Vía kaleko obren Udal Emakidaren ardura (2. eta 3. zatiena). Hala, litekeena baino seguruagoa da haren eskutik hasi izana Muguruzaren eta Dueñasen arteko lankidetzak.

1930ean, Maria Kristina Borboikoa erreginaren estatua bat egiteko enkargua eman zioten Dueñasari, Madrilgo Garbitzaileen Aterpearen aurrean ezartzeko, San Vicente pasealekuan, erregina hark erakunde hari beti emandako babesaren oroigarri. *Colores* aldizkaria izan zen ekimen haren aitzindaria, baita monumentua erai-

86 «La piedra artificial. Valentín Dueñas. Los Vascos, número 10», *El Heraldo de Madrid*, Madril, 1928ko maiatzaren 29a, 12. or.

87 Ibid.

kitzeko harpidetzen kudeatzailea ere⁸⁸. Valentín bera izan zen harpidetzaren aitzindarietakoa, Felipe Sánchez Pintado, Alfonso Giráldez-Borbón eta Espainiako Bankuarekin batera⁸⁹.

Garai hartan –hogeita hamarrek hamarkadaren erdialdera– egin bide zuen, halaber, José Antonio Agirre lehendakariaren marmolezko bustoa, gaur egun Gasteizko Ajuria Enean dagoena.

Azken urteak (1937-1952)

Zoritarrez, ez dago Valentín Dueñasen azken urteei buruzko inolako informaziorik, Gerra Zibilaren hasieratik heriotzaraino; are gehiago: ez dago haren heriotzaren data zehatzik ere. Batzuek diotenez 1954an⁹⁰ hil zen; baina, berrikiago, 1952an⁹¹ datatu dute haren heriotza. Nolanahi ere, artistak eskultore gisa lanean jarraitu bide zuen, seguru asko, apaindura eskulturaren arloan edo berak sortutako proiektuetan baino gehiago, hirugarrenentzako proiektuak amaitzen; izan ere, erakusketetan parte hartzeari utzi zion, nahiz eta 1950ean deklaratu urteko 24.000 pezetako irabazia zuela eskultore gisa⁹².

Valentín Dueñas, eta haren eta Echevarrieta sendiaren arteko harremana

Echevarrieta familia XIX. mendearen azken laurdeneko eta XX. mendearen lehen hereneko euskal enpresaburuaren familia nagusietakoa izan zen: garai hartan, izugarritzko dirutza bildu zuen, Chávarri, Ibarra, Martínez Rivas eta de la Sota familiek bezala, besteak beste.

Familia haren oparotasunaren aitzindaria Cosme Echevarrieta Lascuráin (1842-1903) izan zen, Juan Manuel Echevarrietaren –toska eta kristaleria saltzaille sartutako arotza– eta Marta Lascuráin Madariagaren semea. Politikan nabarmendu zen Cosme (XIX. mendearen azken hereneko Bilboko buruzagi errepublikano nagusitzat hartua da, hain zuzen ere), baina enpresaburu aktiboa ere izan zen, eta hainbat negozio sortu zituen. 1867an, esaterako, Echevarrieta y Olave ondasun erkidegoa sortu zuen Julián Olaverekin batera: kolonietako gaiak, ozpinetakoak, gabarrak eta meatzaritza ziren enpresa haren jardura arloak. Politika aktiboa utzi ondoren, Echevarrieta y Larrínaga sozietatea sortu zuen, Bernabé Larrínagarekin batera, 1882an: higiezinaren espekulazioan jardun zuen sozietate hark, baita burdin erauzketan eta ekoizpenean ere, eta meategiak ustiatu zituen Bizkaian, nahiz, aurrerago, 1890eko hamarkadatik aurrera, penintsulako beste zenbait tokitan, hala nola Fortunan (Mazarrón, Murtzia) eta Sierra Meneran (Teruel eta Guadalajara).

Cosme Jacinta Maruri Carvajalekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituen: Amalia (1868-1955) eta Horacio Echevarrieta Maruri (1870-1963). Horaciok aitaren ideia liberalak bere egin zituen (Gorteetako diputatua izan zen, Bilbotik, errepublikano-sozialisten batasunaren eskutik, 1910. eta 1918. urteen bitartean), baita meatzaritzako negozioak ere. Negozio haiek hedatu eta askotarikotu egin zituen, gainera: besteak beste, interesa izan zuen ontzigintzan, energia hidraulikoan (Saltos del Dueroren sorreran parte hartu zuen –gerora Iberduero, eta, aurrerago, Iberdrola–), zementugintzan (Cementos Portland Iberia enpresaren sortzaileetako

88 «La Reina doña María Cristina y el Asilo de las Lavanderas», *ABC*, Madril, 1930eko irailaren 18a, 23. or.; «La Reina doña María Cristina y el Asilo de las Lavanderas», *ABC*, Sevilla, 1939ko irailaren 19a, 22. or.; «Para un monumento a la Reina Cristina», *El Siglo futuro*, Madril, 1930eko urriaren 2a, 4. or.

89 «Para un monumento a la Reina Cristina», *El Siglo futuro*, Madril, 1930eko urriaren 2a, 4. or.

90 Flores 1954, 155. or., zeinaren arabera Valentín Dueñasena baita berriki gertatutako heriotza –eta, hortaz, eskuizkribua amaitu zuen datatik hurbilekoa (1954an eman zen argitara eskuizkribua)–, Madril gertatua; Bilbao 1984, 53. or., non esaten baita «Madrilen hil bide zena 1954 inguruan».

91 *Enciclopedia general ilustrada del País Vasco* [online]. Donostia: Auñamendi, 1979-2003 [Kontsulta: 2015eko urriaren 20an]. Online eskuragarri: <<http://www.euskomedia.org/aunamendi?idi=es>>; Barañano/González de Durana/Juaristi 1987, 251. or.; Sáenz de Gorbea 2004, 11. or.; Soto 2013, 61. or.

92 AV, 1950eko bizilagun errolda, 76. alea, 23.333. orrialdea.



9. Francisco Iturrino (Santander, 1864-Cagnes-sur-Mer, Frantzia, 1924)
Rafael Echevarría jaunaren erretratua, 1913
 Olioa mihisean. 145,3 x 115,4 cm
 Bilboko Arte Ederren Museoa
 Inb. zenb.: 82/187



10. Valentín Dueñas
Horacio Echevarrieta Maruri, 1921
 Brontzea. 46 x 35 x 22 cm
 Euskal Museoa-Bilbao-Museo Vasco
 Inb. zenb.: 2010/1071

bat izan zen), garraioetan (Iberia hegazkin konpainiaren aitzindari izan zen, besteak beste) nahiz petrolio ustiapenean⁹³. Amalia, berriz, Rafael Echevarría Azcáraterekin ezkondu zen (1873-1926) [9. ir.], eta anaiarekin batera esku hartu zuen hainbat ondasun eta proiektutan, Munoa etxaldekoan, esaterako. Gurutzetako Burtzeña auzoan zegoen etxalde hura, Barakaldon; Rafael Echevarría bere osaba eta Villagodioko markes Alfredo Echevarría Arriagari erosi zion 1916ko urriaren 28an, eta han zuten bizitokia Amalia eta Rafael senar-emazteek, baita Concepciónen ere (Málaga), Amaliak 1911n erositako beste etxalde batean, non ezarri zituzten, halaber, Dueñasen zenbait obra, esate baterako 1915eko pentsioari zegozkion bi estatuetako bat, *Ninfa* izenez ezaguna [3. ir.]. Horaciok ere denboraldi luzeak igaro zituen Munoan; hantxe hil zen, 1963ko maiatzaren 20an.

Ez dago jakiterik nola hasi zen Dueñasen eta Echevarrieta familiaren arteko harremana, baina uste izatekoa da Dueñasen maisu Paco Durrioren bidez jarriko zirela harremanetan, tratu adeitsu eta emankorra izan baitzuen hark familiarekin —lehenago, berak aurkeztu zion Francisco Iturrino ere (1864-1924) Horaciori— edo, agian, bi familiek ideologia errepublikanoa zutelako (ez da ahaztu behar Valentínen aita Kasino Errepublikanoko idazkaria izan zela). Edonola ere, Valentínek familia hartako zenbait kiderentzako enkarguak egin zituen, Parisko lehen urteetatik aurrera gutxienez⁹⁴. Artistaren ibilbide biografikoan zehar aipatu dira, jada, lan horietako batzuk (kokaleku ezezagunean, gaur egun, horietako zenbait) eta balizko beste proiektu batzuk, Rafael Echevarríaarentzat eginak, batik bat: soslaiz ikusten den emakume baten erliebea, 1912an datatua;

93 Cosme eta Horacio Echevarrietari buruz, ikus, bereziki: Díaz Morlán 1999 eta Díaz Morlán 2011. 94 Eta horrek indartu egiten du Durriok bien arteko bitartekari lana egin zuelako hipotesia.


11. Valentín Dueñas
*Mutil gaztea biluzik eta
kokoriko, katilu bat hartzen*
c. 1915-1921
Brontzea. 28 cm (altuera)
Bilduma partikularra



12. Valentín Dueñas
Dontzeila bat, makurturik, c. 1915-1921
Brontzea. 23 cm (altuera)
Bilduma partikularra



13. Valentín Dueñas
*Mahai erdirako apaingarri zilarreztatua, lore giraldez elkarri loturiko
gizon-emakumeen irudiez osatua, c. 1915-1921*
Zilarra. 32 x 56 cm
Bilduma partikularra



14. Valentín Dueñas
*Neskatila txirikordadun baten
erretratua, 1921-1903*
Marmola. 56 x 19,7 x 21,2 cm
Bilduma partikularra



pentsoari zegozkion 1915eko bi igorpenetako bat –bi emakume irudietako bat–; 1917an urtutako brontzezko erloju bat; *Ruth* obraren harrizko bertsioa (1920), eta Echevarría la Llana familiaren panteoia, Derioko (Bizkaia) Vista Alegre hilerrian. Horacioren busto bat ere egin zuen [10. ir.]⁹⁵, 1921ean sinatua eta Mir y Ferrero madrildar etxean brontzean urtua. Horiei gehitu behar zaizkie Pedro Muguruza arkitektoaren zenbait proiektutan izandako partaidetza eta zenbait pieza eskultoriko: brontzezko bi irudi apaingarri, 28 eta 23 cm luzeak, zeinak irudikatzen baitituzte, hurrenez hurren, gazte biluzi bat, kokoriko, katilu batekin, eta dontzeila bat, makurturik [11. eta 12. ir.]; mahai erdirako apaingarri bat, lore girlandez elkarri loturiko gizon-emakumeen irudiez osatua [13. ir.]; neskatila txirikordadun baten marmolezko bustoa [14. ir.], 1921⁹⁶ ingurukoa, eta, jakina, artikulu honen aztergaiak, tximinia eta emakume etzanaren irudia⁹⁷.

Bestalde, dirudienez, Valentínek Rafael Echevarríaaren bitartekari modura jardun zuen artelanen eta zaharkinen salerosketan⁹⁸, Paco Durriok Horacio Echevarrietarekin bezala.

Munoa jauregiko jangelako tximinia eta *Emakumezkoa, etzanda*

Dueñasen obra haietako gehienak Echevarrieta familiak Burtzeñan zuen jauregitxoan ezarri ziren. Munoa deritzon etxandi hura landetxe bat zen jatorrian –1860an, ordea, berritu egin zuen Juan Echevarría La Llana bilbotarrak (1803-1881)–, ingeles tankerako parke zoragarri batek inguratua, Kadagua ibaiaren bokalean. Esan dugunez, Juan Echevarríaaren iloba Rafael Echevarriak haren bigarren semeari erosi zion, Alfredo osabari, 1916an, eta hura berritzeko enkargua eman zion Ricardo Bastida arkitektoari (1879-1953). Jatorrizko etxeak diseinu eklektikoa zuen, eta egikera dotorea. Bastidak bi albo hegal gehitu zizkion erdiko gorputzari; mantsarda edo txapitula batez burutu zituen hegalak, eta itxura arranditsua eman zion etxeari, frantses tankeran, jatorrian eraikina inguratzen zuen zazpi hektareako orubean nabarmen agertzeko moduan.

Tximinia jauregitxoko beheko solairuko jangelan ezarri zuten [15. eta 16. ir.], hasieran, etxearen gune nagusian: ardatzean, hain zuzen ere, bi leihotzar handiren artean eta mahai nagusiaren alboan. Paretan sartuta zegoen, eta lur arras zuen sutokia; Ereñoko marmol gorritzko egitura zabal batek estaltzen zuen haren aurrealde guztia, aretoaren sabairaino (340 cm altua eta 142 cm zabala). Apaingarri arkitektoniko hori, *neopalladianismo* deritzon estilokoa, bi altueratan antolatuta dago, erlaitz edo apal irten batek bereizten dituela bi altuerak. Erlaitza ongi egokitzen zaio tximiniaren irudi orokorrari, eta mugimendu erritmiko bat iradokitzen du oinean beheko gorputzean, goikoan desegiten dena. Erlaitzean dago, hain zuzen *Emakumezkoa, etzanda* pieza, eta, haren aldamenetan, bi lorontzi apaingarri jarri zituzten hasieran.

Tximinia palladiano deritzenak oso ohikoak ziren Neoklasizismoan; marmolez eginak izaten ziren, alboetako euskarriek zutabeak itxuratzen zituzten, eta lore xingolez apaindutako markoa izaten zuten. Adibide hone-

95 Hasieran Paco Durriori egotzia. Ikus Barañano/González de Durana 1988, 149. or.

96 Hura ere hasieran Paco Durriori egotzia (ikus Barañano/González de Durana 1988, 157. or.), eta, ondoren, Dueñasen obra gisa argitaratua honako honetan: Bilbao 2013, 61. or. 1910-1913 inguruan datatuta ageri da katalogo horretan, eta, hemen, aurreragoko data bat proposatzen da, 1921 ingurukoa, bustorako egindako marmolezko oinarri bat egin zuen datatik hurbilagokoa (hain zuzen ere, 1921eko abuztuan eskatu zuen oinarri hura Marmolera Industrial de Alejandro Estrada y Ramos etxean). (AMBAB, Alejandro Estrada y Ramosek Valentín Dueñasi igorritako gutuna, Madril, 1921eko abuztuaren 5a, Roberto Sterling-Fondo Rafael de Echevarría artxiboan kontserbatua, D10). Artistak 1910eko hamarkadaren bukaeratik 1920koaren hasierara izan zuen ekoizpenari lotuagoa dirudi busto horrek, gainera.

97 Aipatutako piezetatik, dirudienez, emakume etzanaren brontzezko irudia eta neskatila txirikordadunaren marmolezko bustoa Amalia Echevarrietaren jabetzakoak ziren, eta Munoa etxaldean konfiskatu zituzten Gerra Zibilaren hasieran; 1937ko irailean eskatu, eta 1941eko ekainetik aurrera berreskuratuta zituzten jabeek (AMBAB, Juan Hernani Echevarriak sinatutako egiaztagiria, Bilbao, 1941eko ekainaren 23a, D 1.519).

98 Valentín Dueñasek Rafael Echevarríaari idatzitako gutun batetik ondorioztatzen denez (1921eko maiatzaren 24an datatua, Madrilen, eta AMBABen kontserbatua, Roberto Sterling artxiboa- Rafael de Echevarría funtsa, D1).



15.-16. Munoa jauregiko jangelako ikuspegiak, tximinia jatorrizko kokapenean dela



tan, zutari ildaskatuak dituzte beheko gorputzak nahiz goikoak. Beheko atalak –mugimendua iradokitzen du haren diseinuak oinean– bi zutari maila ditu, egitura dinamizatzen dutenak. Zutariak oinarri laukizuzen baten gainean garatzen dira, eta elkarren gainka antolatutako xaflez apaindua dute fustearen beheko aldean (aireztatze sareten tankera gogorarazten dute). Kapitela jonikoaren interpretazio libre batek buru ematen die zutariari: ez du astragalarik eta brontzeko zimazio joniko bat du, garapen handiko eraztun trapezoidal lerro-makur baten gainean, azkon eta dardo apaindua. Ke kanpai metalikoaren hasierak gai geometrikoko xingola apaingarri bat du, *art déco* tankerakoa, eta tximiniaren ahoa, forma laukizuzenekoa, zeramika gorriko lauzez sendotuta dago osorik.

Gorputz horren gainean, erlaitza garatzen da, taulamendu doriko irauli baten modura artikulaturik. Arkitrabe lau bat du, eta, ondoren, friso bat, akanto hostozko brontzeko erliebez apaindutako triglifo lauek eta glifoen interpretazio libre eta ganbil batez apaindutako metopak osatua. Arkitrabea eta metopak etenez, brontzeko plaka laukizuzen bat txertatzen da, erdian, emakumezko baten moztarraz apaindua, eta, plaka horren azpian, landare gaiekiko orla apaingarri bat dago zintzilikaturik, metalezkoa hori ere. Frisoaren gainean, berriz, egitura hirukoitz bat dago, hegal edo zimazio modura ezarria, zeinetan konbinatzen baitira zenbait moldura mota: listela, toru laurdena, eta, berriro ere, beste listel bat, aurrekoa baino zabalagoa.

Goiko aldeari dagokionez, beste bi gorputzetan banatuta dago atal hori ere, taulamendu batek buru ematen diola; bi zutari ildaskatu ditu alboetan, ordena erraldoikoak. Zutarien garapena etena da, kapitela banak etena, hain zuzen ere; kapitela brontzean urturiko akanto hosto estilizatuz apainduta daude, eta burualde jonikoa dute, marmolezkoa. Bi zutarien artean, bestalde, brontzeko erliebe bat dago marmolezko egituran ahokatuta eta apaindura geometrikozko friso neoerromaniko batek burutua –erliebe horixe da, hain zuzen, multzoaren osagaririk interesgarriena, eta sakon aztertuko dugu aurrerago–. Friso horren gainean, multzoa itxiz, brontzeko xafila bat ageri da, landare gaiez apaindua –palmondo eta akanto hostoak–. Su-hesiari eta



17. Valentín Dueñas (Bilbao, 1888-Madril, 1952)
Kleopatraren oturuntza, 1919
Brontzea. 88,7 x 75,1 cm
Bilboko Arte Ederren Museoa
Tximiniako frontoia apaintzen duen erliebea

bertzunaren jokoko piezei dagokienez, estilo neoerrenazentistakoak dira, eta erosiak, seguru asko, zein bere aldetik, garai batean erlaitzaren alboetan jarritako lorontzi apaingarriak bezala.

Tximinia honen itxura arkitektonikoak –Valentín Dueñasek sortua, seguru asko, sinaturik ez dagoen arren eta haren diseinuaren zirriborrorik aurkitu ez den arren– urruneko erreferente bide ditu Íñigo Jones britainiar arkitektoaren (1573-1652) ukitu palladianoko formak. Era horretako elementuen diseinuan nabarmendu zen Íñigo Jones; baina aipatzekoa da Dueñasek, hark ez bezala, tximinia aretoan integratzearen aldeko apustua egin zuela lan honetan, hura aretotik bereizi edo hartan nabarmendu orde. Aretoko egurrezko panelekin integratu zuen, hain zuzen, Christopher Wren (1632-1723) ingeles arkitekto eta tximinia diseinatzaile ospetsuak egin ohi zuen antzera. Aztergai dugun obra honen aurrekari modura har litezke, halaber, Robert (1728-1792) eta John Adamenak (1735-1826): egile horiek tximinia aho simetrikoak proposatu zituzten, harrizko edo marmolezko behe erliebe oparoekiko markoez apainduak, eta gauzak uzteko goi erlaitz batez hornituak, baita horman integratutako frontoi batez ere, koadroren bat zintzilikatu ahal izateko bertan (kasu honetan, puntu erdiko arkuak buru ematen dion eskultura-erliebe nagusiak betetzen du gunehori).

Valentín Dueñasek Mir y Ferrero etxean (Madril) galdu zuen erliebea [17. ir.] brontzean, 1919. urtean. Kleopatraren heriotzaren aurreko oturuntza da erliebearen gaia, Plutarkok *Bizitza paraleloak* obran Antoniori eskainitako testuan kontatutako bertsioan (LXXXIV.-LXXXVI. kapituluak; batik bat, LXXXV. kapitulua)⁹⁹. Oktaviok Alexandria hartu zuenean, bere buruaz beste egin zuen Kleopatrak, K.a. 30. urteko abuztuaren 12an, hogeita hemeretzi urte zituela, jakin zuelarik Oktavioren asmoa zela bera Erromara eraman eta esklabo gisa jendaurrean erakustea. Hala, Marko Antonio maitalearen hilobira bisita egin ondoren, bainua presta ziezaioten agindu zuen Kleopatrak, eta, jarraian, oturuntza bat prestatzeko. Oturuntzan, gizon bat agertu zen fruta-ontzi batekin (piku ontzi batekin, Plutarkoren bertsioaren arabera); ontzi hartan, aspis bat zegoen ezkutaturik, eta Kleopatrari kosk egin, eta pozoitu egin zuen. Erreginaz jantzita eta buruan koroa zuela aurkitu zuten gorpua, «urrezko ohantze batean etzanik, erregina modura apaindurik» eta alboan zituela bere bi zerbitzariak, Charmion eta Iras, biak ere hilzorian.

Kleopatraren bizitza eta, bereziki, haren suizidioa artista, idazle nahiz musikari askok izan dute inspirazio iturri, bereziki XVI. mendetik aurrera¹⁰⁰. Giambattista Tiepolo, Eugène Delacroix, William Shakespeare, Théophile Gautier, Georges Bernard Shaw, Georg Friedrich Haendel eta Jules Massenet sortzaileek betikotu zuten, besteak beste, Kleopatraren irudia, beren pintzel, luma nahiz akordeez. Kleopatraren heriotza tragikoaren adierazpenari dagokionez, biluzik dela aspisak kosk egiten dion uanean edo haren hilotza eta bi zerbitzariak aurkitu zituzten uanean oinarrituak dira gehienak; horiek dira, hain zuzen ere, indar dramatiko handieneko uneak, eta haiexek aukeratu zituzten Michelangelok, Guido Renik eta Artemisia Gentileschik, esate baterako. Bestalde, historiako *femmes fatales* nagusietakoa izan zen Kleopatra, eta maiz irudikatu zuten mende amaierako artistek, esate baterako Pierre Puvis de Chavannes, Gustave Moreau, Arnold Böcklin, Sir Lawrence Alma-Tadema eta Paul Gauguinek berak.

Aipatutako adibide horietan ez bezala, ordea, Dueñasek heriotza aurreko oturuntza ospakizuna aukeratu zuen bere erlieberako, pasarte egokiagoa zelako, zalantzarik gabe, tximinia ezarriko zen girorako, jangelarako. Ez dakigu Echevarrieta familiak proposatu ote zion gaia, edo –litekeenagoa dirudienez– artistak berak iradoki ote zion etxekoei, Paco Durrio maisuak egiptoar arterako zuen zaletasunak bultzatuta¹⁰¹, baina, be-

99 Plutarko 1921, 277.-280. or.

100 Gai honi buruz, bereziki interesgarriak dira bi erakusketa katalogo: Londres 2001 eta Geneva 2004.

101 Ez da ahaztu behar Durriok Kleopatrari eskaini zizkiola bere bitxietako batzuk eta berebiziko eragina izan zutela egiptoar formek haren zenbait lanetan, hala nola, *Echevarrieta familiaren panteoia* eta *Arriagaren monumentua* obretan, zeinetan jardun zuen Dueñasek lankide modura.



18.-19.-20. *Kleopatraren oturuntza*, 1919
Bilboko Arte Ederren Museoa
Xehetasunak

tiere, aretoari eta hango dekorazioari egokiturik, hark egin ohi zuen bezala. Hain zuzen ere, Durriok egindako antzeko beste lan baten oso antzera inskribatuta daude hemen erliebea eta haren perspektiba, harenak oso bestelako gaia zuen arren: *Tximiniarako proiektua*. *Jesusen aurkezpena euskal taberna batean* zen Durrioren lan haren izena, eta 1900 inguruan diseinatu zuen, Ramón de la Sotaren Ibaiganeko jauregiko tximinia hondorako txapa modura.

Dueñasen irudia errege jauregian kokatuta dago, errezelaz inguratutako areto batean; areto horretan, nabarmen ageri da, espazioaren parte gehiena betetzen duen erliebea, ohea (Plutarkok aipatutako urrezko ohantzea): lau mailako eskailera batetik igotzen den plataforma baten gainean dago, eta palmondo formako lau zutabek eutsitako ohe-zeru batek eta taulamendu batek buru ematen diote. Taulamendua aretoko sabaian sartuta dagoela dirudi; haren erdian, Nekhbet jainkosaren irudia nabarmentzen da, sai itxuran irudikatutako, jainkosa horren ikonografian ohikoa den bezala. Egiptoko zaindariatako bat da Nekhbet, Wadjetekin batera. Wadjet kobra gorputza edo burua duen emakume baten itxuran agertu ohi den bezala, Kleopatrari eraso zion aspisaren bidez irudikatuta bide legoke hemen. Bi jainkosa haiek errege tituluak ziren Goi eta Behe Egipto bateratu zirenetik, eta herrialdearen gaineko subiranotasuna adierazten zuten.

Ohean, Kleopatra erregina ikusten da, ezker besoan bermaturik, bere patruaren zain. Hamaika irudi ditu inguruan, guztira: bost zerbitzari, horietako batzuk frutak eta jakiak dituztela eskuetan; hiru ahotseko koru bat [18. ir.], konposizioaren ezkerreko ertzean, Luca della Roviaren *Cantoriako* pertsonaiak gogorarazten dituenak, batzuen eta besteen arteko distantzia formalak gorabehera; bi musikari; esku danbor bat jotzen ari den gizon bat, eta emakume bat, ohearen oinetan belaunikaturik, harpa jotzen. Azkenik, beste irudi bat ere bada: dantzari biluzi bat, aurrealdean nagusi dena baina ezkerrean doana, bere mugimenduekin irudiko pertsonaia gakoak erakutsiz bezala: aspisa ezkutatzeko den frutaontzia (ez ditu soilik pikua: Plutarkoren testuaren interpretazio librea egiten du, beraz, horretan) daraman zerbitzaria [19. ir.] eta Kleopatra bera.

Pertsonaia guztiak sakonera plano desberdinetan kokatuta ageri dira irudian, erliebearen bolumenaren pizkanakako urritzei esker, eta konposizioa mukuru beteta dagoelako sentipena sortzen du haien antolakerak, halako *horror vacui* bat, are gehiago indartua aurrealdearen albo bietan kokatutako gizonezko irudiak markora egokitzeko egindako lanaren bidez. Sentipen hori areagotzen du, halaber, perspektiba behartuen jokoak: perspektiba nagusi bat dago, zoruko zolen marrazkiak markatua, eta beste bat, harekin diskordantea, ohearen egiturak zehaztua. Kanon estilizatuko irudiak dira, gihartsuak (bereziki deigarria, Kleopatraren kasuan), eta Durriok eta Gauginek sortutakoak gogorarazten dituzte haien aurpegiaren hazpegi primitibo eta sintetikoenak. Irudi interesgarrienak aurrealdean kokatutako pertsonaienak direla esan daitezke: eszenaren ezkerrean belauniko danborra jotzen ari den musikaria, zeinaren ikerketa anatomikoak erakusten baitu Dueñasek Parisen pentsiodun gisa egindako garaian jasotako eragina, Antoine Bourdellerena eta Ivan Meštrovićena, esate baterako (1883-1962); bizkarrean ontzia daraman esklaba (erreginaren bainurako urez betea, agian), **zeinaren** gorputz jarrerak lausoki gogorarazten baitu Miche Langeloren esklaba amaitugabeetako batena, eta, batik batik, dantzari biluzia [20. ir.], jarrera egongaitzekoa eta forma bihurtuak. Dantzariaren irudiak izaera nabarmen apaingarria du, ilearen eta oihalaren tratamenduak agerian uzten duenez; *art nouveauren* eta *art déco*n maiz irudikatu ohi ziren dantzarien iruditxoaren eragina du xehetasun horrek —adibidez, Demetre Chiparusena (1886-1947), zeinak irudikatu baitzuen Kleopatra hainbat lanetan—.

Tximiniaren multzoan, aparteko interesa du, orobat, beheko gorputzeko frisoan txertatutako xafak [21. ir.]. Marko laukizuzen batean sartuta dago, eta emakume mozorro baten irudia ikusten da erdian, oso izaera laburrekoa eta aurretik ikusita. Begi estuak ditu, sudur zuzena eta ezpain mamitsuak; ilea du aurpegi inguruan, bloke uhindun handitan landua, eta belarrien altueran bi apaingarri zirkular, azaldutako erlie beko dantzariarena eta harpajolearena gogorarazten dituztenak. Dueñasen beste lan batzuetan ere ageri dira



21. Valentín Dueñas
Maskaradun erliebea, c. 1919
 Brontzea. 24 x 33,9 cm
 Bilboko Arte Ederren Museoa
 Tximiniako frisoetako bat apaintzen duen plaka

horrelako mozorroak, eta Paco Durriok *Juan Crisóstomo de Arriagaren monumentuaren* oinarrian ezarritakoen oinordekotzat har litezke: Derioko Vista Alegreko hilerriko Echevarría la Llana familiaren hilobian ageri dira, adibidez, mastaba apaintzen. Bestalde, ilearen trataera labur eta apaindurazkoak beste eskultore batzuen keinu primitibisten eta *art déco*aren estetika klasizista gogorarazten du, esate baterako Vicente Beltrán Grimalena (1896-1963).

Tximiniaren erlaitzeko *Emakumezkoa, etzanda* pieza [22. ir.] Madrilen galdatu zuen Valentín Dueñasek, Mir y Ferrero etxean hura ere, 1930ean. Obra independentea da, beraz, tximiniaren erliebe nagusia egin eta hamaika urtera landua, baina oso litekeena da hasieran multzoa osatzeko elementu apaingarri gisa pentsatua izatea. Izan ere, osagai horren gaia (emakume bat, etzanda, fruituz estalita) oso ongi uztartzen da erliebean irudikatutako oturuntzarekin. Erliebean ez bezala, ordea, pieza honetan Dueñas gehiago hurbiltzen da eskultura klasikora, ordenarako itzulerarekin emakumezko irudirako forma nabarmenak berreskuratuz, Echevarrieta¹⁰² familiarentzat egindako zilarrezko lau erliebeetan Nemesio Mogrobejok urte batzuk lehenago eta Ramón Mateu Montesinos (1891-1981) eta Vicente Beltrán Grimal (1896-1963) valentziar eskultoreek egin bezala. Izan ere, gorputzaren jarrerak, erritmo bihurtuarekin, eta emakumearen jarrera dionisiakoak mitologia klasikoko bakanteen irudiak gogorarazten dituzte, baina hemen ardo pitxerraren ordez fruituak ageri dira, emakumea estaliz, lotsa onez, oihala iristen ez zaion gorputz ataletan, ezker besotik eta lurreraino jausiz, eskuin besorantz. Emakumearen aurpegiari dagokionez, lotura du Dueñasek Parisen pentsiodun gisa egindako egonalditik aurrera landutako irudi adierazgarriekin; Torre, Bourdelle eta Meštrović eskultoreen eraginez hartu bide zuen joera hori, nabarmena, besteak beste, La Concepción etxaldeko (Málaga) *Ninfa* eta Vista Alegreko hilerriko *Martín de Aldama* familiaren hilobia obretako emakumezko irudietan.

102 Bilboko Arte Ederren Museoa, 09/234., 14/5., 14/6. eta 14/7. inb. zenb.



22. Valentín Dueñas
Emakumezkoa, etzanda, 1930
 Brontzea. 27,5 x 69 x 19 cm
 Bilboko Arte Ederren Museoa
 Tximiniako apalaren gaineko eskultura

Zoritxarrez, ez dago ez tximiniaren ez *Emakumezkoa, etzanda* piezaren enkarguari eta lanketari buruzko inolako dokumentaziorik. Edonola ere, ez da ahaztu behar biak ala biak egon zirela Munoa jauregiko jangelan kokatuta, eta 1910eko hamarkadaren erdialdera Aurelio Arteta euskal margolariak (1879-1940)¹⁰³ egindako olio pinturen ziklo bat ere bazela areto hartan; Artetaren ziklo horretako irudietan marrazki markatuz eta hondoen abstrakzio kromatikora jotzen duten kolore biziez adierazita daude lurreko nahiz itsasoko elikagai eta edarien alegoriak. Nire iritzian, margolan haiek egin ziren garaian edo handik gutxira –1917. eta 1919. urteen bitartean, agian– egin bide zioten Valentín Dueñasi tximinia apaintzeko enkargua, Espainiara itzu-li zenetik erliebe nagusia sinatu zuen urtera bitarteko tartean. Hala, Kleopatraren oturuntza eta 1930eko *Emakumezkoa, etzanda* gaiaren bidez lotuta leudeke jangelako margolanen zikloarekin, eta haiek ixten zuten dekorazioa jan-edanaren eta sukaldaritzaren plazeraren gozamenaren gune hartan, zeina baitzen etxeko gune nagusia eta, aldi berean, familiak urte haietan euskal artisten mezenas modura egindako lanaren erakustoki aparta.

¹⁰³Gaur egun, gehienak Bilboko Arte Ederren Museoaan kontserbatuta daude. Gai honi dagokionez, funtsezkoa da Miriam Alzuri prestatzen ari den «Aurelio Arteta. Su ciclo decorativo para el comedor del palacio Munoa» artikuluaeren ekarpena.

Bibliografía

Amezaga 2013

María Amezaga Massalleras. *Paco Durrio : viviendo París*. Bilbao : Muelle de Uribitarte, 2013.

Barañano/González de Durana 1987

Kosme M^a de Barañano ; Javier González de Durana. «La Exposición Internacional de Pintura y Escultura. Bilbao, 1919», *Kobie* (Serie Bellas Artes), Bilbao, 4. zenb., 1987, 159.-182. or.

Barañano/González de Durana 1988

—. «El escultor Francisco Durrio, 1868-1940 : epistolario, catálogo y notas sobre su vida y obra», *Kobie* (Serie Bellas Artes), Bilbao, 5. zenb., 1988, 113.-187. or.

Barañano/González de Durana/Juaristi 1987

Kosme M^a de Barañano ; Javier González de Durana ; Jon Juaristi. *Arte en el País Vasco*. Madrid : Cátedra, 1987.

Bilbao 1919b

Primera Exposición Internacional de Pintura y Escultura : catálogo. [s.l. : s.n.], 1919 (Bilbao : Imprenta Elexpuru Hnos.).

Bilbao 1934

Tercera Exposición de Artistas Vascongados. [Erak. kat.]. [Bilbao : Museo de Arte Moderno de Bilbao], 1934.

Bilbao 1984

Escultura vasca, 1889-1939. [Erak. kat.]. Bilbao : Banco de Bilbao, 1984.

Bilbao 2013

Francisco Durrio, 1868-1940 : sobre las huellas de Gauguin. [Erak. kat.]. Bilbao : Bilboko Arte Ederren Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2013.

Caparrós 2014

Lola Caparrós Masegosa. *Historia y crítica de las exposiciones nacionales de bellas artes, 1901-1915*. Granada : Universidad de Granada, 2014.

Díaz Morlán 1999

Pablo Díaz Morlán. *Horacio Echevarrieta, 1870-1963 : el capitalista republicano*. Madrid : Lid, 1999.

Díaz Morlán 2011

—. *Horacio Echevarrieta : empresario republicano*. Bilbao : Muelle de Uribitarte, 2011.

Flores 1954

Mauricio Flores Kaperotxipi. *Arte vasco : pintura, escultura, dibujo y grabado*. Buenos Aires : Editorial Vasca Ekin, 1954.

Geneva 2004

Cléopâtre dans le miroir de l'Art Occidental. [Erak. kat., Geneva, Musée Rath]. Genève : Musées d'Art et d'Histoire ; Milan : 5 Continents, 2004.

Gómez de la Serna 1986a

Ramón Gómez de la Serna. *Pombo*. Madrid : Trieste, 1986.

Gómez de la Serna 1986b

—. *La Sagrada Cripta de Pombo*. Madrid : Trieste, 1986.

Londres 2001

Cleopatra of Egypt : from history to myth. [Erak. kat.]. London : British Museum, 2001.

Marrodán 1980

Mario Ángel Marrodán. *La escultura vasca : primer estudio de más de un millar de escultores vascos, varios de los cuales figuran a la cabeza de la plástica mundial de todos los tiempos*. Bilbao : La Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

Madrid 1915

Catálogo oficial de la Exposición Nacional de Pintura, Escultura y Arquitectura. Madrid : Artes Gráficas Mateu, 1915.

Madrid 1920

Catálogo oficial de la Exposición Nacional de Bellas Artes de 1920. Madrid : Artes Gráficas Mateu, 1920.

Madril 1922

Catálogo oficial de la Exposición Nacional de Bellas Artes de 1922. Madrid : Mateu Artes Gráficas, 1922.

Madril 1925

Catálogo de la Primera Exposición de la Sociedad de Artistas Ibéricos. Madrid : [s.n.], 1925.

Madril 1985

Escultura española, 1900-1936. [Erak. kat., Madril, Palacio de Cristal]. Madrid : Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, 1985.

Madril 1995

La Sociedad de Artistas Ibéricos y el arte español de 1925. [Erak. kat., Madril, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía]. Madrid : Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía ; Barcelona : Àmbit, 1995.

Mur 1985

Pilar Mur Pastor. *La Asociación de Artistas Vascos*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao-Caja de Ahorros Vizcaína, 1985.

Pantorba 1980

Bernardino de Pantorba. *Historia y crítica de las Exposiciones Nacionales de Bellas Artes celebradas en España*. Madrid : Jesús Ramón García-Rama J., 1980.

Pérez Segura 2002

Javier Pérez Segura. *Arte moderno, vanguardia y estado : la Sociedad de Artistas Ibéricos y la República, 1931-1936*. Madrid : Consejo Superior de Investigaciones Científicas ; Badajoz : Museo Extremeño e Iberoamericano de Arte Contemporáneo, 2002.

Plazaola 1982

Juan Plazaola. «La escuela vasca de escultura», in *Arte Vasco*. San Sebastián : Erein, 1982, 197.-217. or.

Plutarco 1921

Plutarco. *Vidas paralelas*, IX. alea : *Demóstenes ; Cicerón ; Demetrio ; Antonio*. Madrid : Calpe, 1921.

Sáenz de Gorbea 2004

Xabier Sáenz de Gorbea. «Escultura y escultores vascos (1875-1939)», *Ondare : Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales : revisión del Arte Vasco entre 1875-1939*. Donostia-San Sebastián, 23. zenb., 2004, 91.-138. or.

Sáenz de Gorbea 2007

—. *Bizkaia : arte público*, 5: *Derioko Kanposantua*. Bilbao : Dirección General de Promoción Turística, 2007.

Soto 2010a

María Soto Cano. «Los primeros años del escultor Quintín de Torre, 1877-1910», *Sancho el Sabio : Revista de Cultura e Investigación Vasca = Euskal Kultura eta Ikerketa Aldizkaria*. Vitoria-Gasteiz, 32. zenb., 2010, 43.-70. or.

Soto 2010b

—. «El monumento a Juan Crisóstomo de Arriaga en Bilbao : concurso, proyectos y proceso de construcción, 1905-1933», *Goya*, Madrid, 332. zenb., 2010eko ekaina-iraila, 246.-261. or.

Soto 2013

—. «Escultores pensionados en Bizkaia, 1888-1916», *Ars Bilduma : Revista del Departamento de Historia del Arte y Música de la UPV/EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko Aldizkaria*, Vitoria-Gasteiz, 3. zenb., 2013, 32.-67. or.